



Luzien Etxezaharreta
Egilea eta iturria: *Amaia Elizalde Estenaga*.

Luzien Etxezaharreta (Hazparne, 1946), euskal kazetari, idazle eta editorea da. Paueko Unibertsitatean Fisikan lizentziatu zen, eta oso gaztetatik piztu zitzaion interesa euskal kultur munduarekiko, letrekiko eta edizioarekiko. Frankismo amaierako nahiz trantsizio hasierako euskal testuinguruan ohikoa zen bezala, Etxezaharretaren jarduna aktibista politiko-kulturalarena zen, eta bere motibazioa euskal erresistentzia antifranguista eta euskaltzalearekiko sentsibilitatean zegoen errotuta. Erregimen frankistarekiko Frantziaren kritika faltaren aurrean eta frantziar kulturaren gailentasun errekonozituak euskal kulturari egiten zion itzalaz ohartuta, Etxezaharreta konprometitu egin zen frankismoaren kontrako eta euskal kulturaren berpiztearen aldeko euskal ezkeraren kausarekin.

Etxezaharretak Paueko unibertsitate garaian hasi zuen bere ibilbidea edizioaren munduan. Hala, ikasle zelarik, *Associaton des étudiants basques de Bordeaux* taldeak kudeatzen zuen *Egia* aldizkariaren edizio nahiz banaketa lanetan aritu zen. Hura Bordaleko unibertsitateko euskal ikasleen elkarte baten ere, aldizkariak kolore abertzale eta euskaltzalea zeukan, eta autonomia bereganatu zuen 1965aren bueltan. Aurrerago, 1968an, Enbata talde politiko abertzalearen partaide izan zenean, “Amaia” elkartearen sorreran parte hartu zuen, hainbat argitalpen koordinatuz, eta, aldi

berean, Bordale, Paue, Tolosa eta Pariseko ikasleek sortutako *Ikas* aldizkarian parte hartuz. Horren ostean, 70eko hamarkadarekin, *Hitz* aldizkariaren sorreran lan egin zueneta bertan argitaratutako elkarrizketa nahiz askotariko testuak, orokorrean, kartzetetik heldu ziren. Azken garai horrek bi urte iraun zuen, eta ondoren hasi zen Maiatz Batasuna elkartearen proiektua, *Maiatz* aldizkariaren (1982-...) eta argitaletxearen (1984-...) sorburu izan zena.

1981ean Etkezaharretak Paris utzi zuen Euskal Herrira itzultzeko, eta ordurako indarrez azaltzen hasiak ziren euskarazko adierazpen kultural ugariak, hala nola, *Ustela* (1975-1976), *Susa* (1980-1994) edo *Xaguxarra* (1980-1981) bezalako aldizkari literarioak. Huraxe izan zen Etkezaharretak eta Itxaro Bordak *Maiatz* aldizkariaren proiektua hasi zuteneko garaia, Ipar Euskal Herriko idazleek ere elkar ezagutzeko, elkartzeko eta euren lanak argitaratzeko plaza sortzeko asmoz. Euskal ingurune kultural zaharkituan, aldizkari gaztea euskal literatura berritzaile eta apurtzaile bati atea irekitzeko helburuarekin jaio zen, ordura arte eskura zeuden literatur hedabideetan nekez argitaratu ahalko ziren lanei, alegia. Helburu hori bete eta berehala heldu zen hurrengo pausoa emateko beharra, argitaletxearen lerro editorial bera jarraituz liburuak ere argitaratzearena, alegia. Gaur egun, Etkezaharretak *Maiatz*en zuzendaritza lanetan dihardu, 2017an bere 35. urteurrena ospatu zuena, guztira 227 idazlek argitaratutako 63 zenbaki eta 137 libururen ibilbidearekin.

Amaitzeko, aipatzekoa da, halaber, editore gisa ez ezik, Etkezaharretak euskal kazetari eta idazle gisa ere parte hartu duela euskal kulturaren. Besteak beste, *Euskaldunon Egunkariaren* (1990-2003) sortzaileetarikoa izan zen, Baionako delegazioa koordinatuz, oso era aktiboan kolaboratu du euskal prentsan, eta *Margarita inter porcos* (1993), *Inter-porcos* (2007) eta *Begira* (2012) lanak argitaratu ditu. Idatzizko eremuaz gain, Etkezaharretaren kazetariza jardunaren zati handi bat irratia esparrukoa izan da, bereziki azpimarragarria den Gure Irratia (1981-...) irradi-katearen sorreran egindako lanarekin, adibidez. Azken eremu honetan egindako merezimenduen aitortza izan zen, hain zuzen ere, 2012an Etkezaharretari emandako Argia Saria.

Amaia Elizalde Estenaga
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Bibliografia

ARBELBIDE LETE, Nora. “Maiatz’aldizkariaren 35. Urteurena gogoratu dute”. In *Berria* (2017). On-line bertsioa: <https://www.berria.eus/paperekoa/1840/031/001/2017-04-18/maiatz-aldizkariaren-35-urteurena-gogoratu-dute.htm> (04/09/2019)

ETXEZAHARRETA, Luzien. “Libertatea beti da behin-behinekoa”. In *Argia*(2012), 2336 zk., 10-14 or.

Elkarrizketa argitaragabea.

Dokumentu hau aipatzeko: Elizalde Estenaga, Amaia (2019). “Luzien Etxezaharretaren soslaia”. In *MHLI-Memoria Historikoa Literatur Iberiarretan*
URL: <https://mhli.net/artxiboa/luzien-etxezaharreta/>